

Pastora Iraola Larrañaga

*Soraluze,
Gipuzkoa
(1916-2010)*

Aurkibidea

Biografia



Soraluzeko erdiguneko Lacuestaneko etxean jaio zen "Errotatzoneko" Pastora edo Pastora "Otola". Amak elkartea eta janari-denda zituen etxearen azpian, baina berak ez zituen ezagutu. Gerra etorri zenean, Azkoitian zegoen bere izebaren etxean josten ikasten. Etxeratzeko ordena jaso zuen, gaixoak zituelako etxean, eta soldaduek lagunduta joan zen mendiz. Harrezkero etxekoen kargua hartu zuen eta urtetan gaseosa egiten eta saltzen jardun zuen.

Zintak

SOR-032

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k):** Basauri, Jon
- **Data:** 2004-07-05
- **Iraupena:** 72 min
- **Euskarria:** Mini Disc

SOR-033

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k):** Basauri, Jon
- **Data:** 2004-07-05
- **Iraupena:** 32 min
- **Euskarria:** Mini Disc

SOR-034

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k):** Basauri, Jon
- **Data:** 2004-07-22
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Gerra garaian soldaduekin kotxean Azkoititik Soraluzera

- **Erref:** SOR-034/002
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:00:35. **Bukatu:** 00:03:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

<p>Gerra hasi zenean, Azkoitian zegoen bizitzen. Komandanziatik deitu zioten etxean hiru gaixo zituela eta etxera etortzeko esanez. Hiru neska etorri ziren soldaduekin kotxean. Soraluzen geratu zen, eta gaseosak egitea erabaki zuen.</p>

Transkripzioa

Ze pasau zan? Ba, gerria urten ebanian, ba, ni Azkoittixan nenguan ta deittu zosten familixan hiru... familixan hiru gaixo daukadazela ta komandanziatikan, aiuntamentura etortzeko Pastora. Eta don Hipolito Azkoittikua, don Hipolito uste dot zala, azkoittiarra, organistia, eguan Plazenzian. Eta klaro, etortzeko. Esan notsen eze —abisua aiuntamentutik eta, danak ezagunak zian, ba, danak ezautzen ninduen—, eta “Zu, hau ta hau abiso dao: hiru gaixo ta fateko zeu”. “Nun juango naiz, ba?”, “Mendiz bialduko zaittugu soldau birekin”. “¡Ah sí! [Hermosos]!” holaxe esan notsen, “Ederrak zeuek!” Mutil birekin... Eta gero, kalera urten eta abadia ikusi. Ta “Don Hipolito, nun etorri zara?”, ta “Ba, ni etorri naiz, ba, soldauak juaten diaz astian pagia eruatera Plazenziara, Zumarragatik bueltan, pagia

eruatera, eta periodikua eruatera. Faten dia astelehelen goizeko bederatziretan. Juan zaitte". Palazio beltz haundi eder bat dao han elizian aurrian, eta "Juan zaitte haraxe ta haretzek ainduko dotsue.". Juan giñan eta "Bueno, buenos días" ta "Buenos días". Esan notsen eze, ba, nola esan ostan abadiak berak etortzen zirala Plazenziara astelehen guztietan, ta nola dakaten ordenia etxera etortzeko gaixuak daoze ta. Eta aber berak ekarri neikien, nahiz ta hurrengo astelehenian. Ta ein nittuan artian be hamar bat egun-edo han etortzeke, eta baietz, ekarriko ninduela. Ta hortan, bueno, hurrengo astelehenian juan nitzan lehengusiñiakin. Gero atzera buelta eitten eben. Hori repartuori ein ta juan eitten zian segiduan. Eta beste lagun bat be oso guapia, sasoia, ta elizatik urten eban ta "Rosario, ven con nosotras" esan notsan. Ta "¿Dónde?", "Placencia", "¿Eh?", "Ven, ven, ven". Ta etorri zan ta hiru neskak etorri giñazen. Ba, auto abierto berde bat euken, eta bi soldau aurrian ta hiru neskak etorri giñan atzian. Eta halaxe, bueno, ba, gure amak baeukan zeoze ta bazkaldu eben ta bueltau zian berekin harek. Ta gero pentsau neban eze: "Ene! Zeozetan hasi biharko dot hamen", ta [...] ederra emoten eben Plaza Zaharrian, baiña ez nitzan juan. Esan neban: "Gaseosak egin bihar jittuat, gaizki edo ondo". Azkoittixan be lehengusuak iguala dauka. Guk be zekagun "Cervecería el Leon, Juan y Teodoro Kutz, que ahora habían vendido". Saldu, saldu ein zittuen.

2. Amarengandik ikasi zuen gaseosak egiten

- **Erref:** SOR-034/003
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:03:50. **Bukatu:** 00:06:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Edari-ekoizleak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

<p>"El Leon" garagardo-lantegia zuten eta berak gaseosak egitea erabaki zuen, ezagun bati laguntza eskatuta. Amari askotan ikusia zion eta bazekien nola egiten zen. Gaseosa egitearen inguruko azalpen batzuk eta hasieran izan zituen arazoak. Lehengusuak ere garagardo-lantegia zuen Azkoitian.</p>

Transkripzioa

Guk be zekagun "Cervecería el Leon, Juan y Teodoro Kutz", "que ahora habían vendido". Saldu, saldu ein zittuen. Honek etxe barri ederronek ein dittue, ba, zuen tiok-eta? Han barrixo guztia zan [...] "Cervecería Juan y Teodoro Kutz". Hona etxera etorri zian ondiokan, iñun ez zian ultzerik eitten kajak-eta josteko ta etxian egon zian ondio behin orduantxe epokan. Ta bueno, [Coronan] —orduan zeukagun [Coronan] taillarrian—, ta klaro, pentsau neban, ba, gaseosak ein bihar nittuala. Ta gure anaien laguna zera —[oiñao hil da]— Txatua, Legaristi, ezautuko zendun, hamentxe taillarra-edo euken. Ta haura gaixorik geldittu zan. Abixau notsan. Beti gurera etortzen zian gabonetan ta danian ta, eta esan notsan: "Hi, lagundu ein bihar dostak. Asmau ein bihar juau hamen gaseosia eitten.". Eitten bai. Amak eitten eban lapiko haundi baten hiru kiloko azukarrakin almibarra eitten zan. Ta gero, beste "Orange" botilla bat ederra, naturala, Barzelonatik etortzen zan. Eta haura be, banekixazen horrek. Eta katxarrito, medidia, botatzeko ta horrek danorrek banekixan. Beti begira egoten, ba, danak nekixazen, horrek gauza guztiorrek. Ein sekula be ez,

ein mutillak edo aittak eitten zittuazen. Ta barrixa ekarritta euken tapoiduna. Ez neban extrañau nik, nik ez nekixan zertara, zela dan be ta ezebe. Han ikusi neban etorri nitzanian. Eta esan notsan: “Markos, etorri hari laguntzera neri”, ta “Bai”. Nahiz ta bonbiari, ba, ura, bonbiari erein bihar jakon, eta gero zan katxarro bat, ba, bueltia hartzen zanian, boladunak zian, bola kristalezkuak. Eta bueltia hartzen ebanian, bolia goman sartzen zan, ta “ya estaba cerrao”. Ederki. Eta holakotxe potia, han barruan sartu botillia. Ta eukan dana zuloz beteta aldia guztietatikan ura urtetzeko edo respiraziñua edo kristal pusketak be bai. Bueno, ipintzen neban ta ederki. Buelitia emon ta, ba, zuk erdi betia. Ta nola ez zekiun, bai gasa, gasa haundixa botillia, han eguan, ba, hauraxe falta. [Bolka] bi erloju batendako, ta beste erlojo bat eukan holaxen onduan, ba, bata “en seis había que... en seis y medio, y el otro en siete”. Sifoia. Baiña ez nekixan. Ta nere lehengusu Azkoittikuak be igual-igual “cervecería el Kutz, limonadas hasta hoy”. Ointxe erretirua hartuko eban semiak. Eta, ba, abisau notsen, honetxekin mutil honetxekin astelehenian. Klaro, betetzen hasten nitzan, bueltia emon, edarki! Etaratzen ta... “buo! Honek bolionek dauka! Honek bolionek dauka!”. Ta karretilla haundi baten ipinita han juaten nitzan neu taberna guztietara. Orduan ez eguan tabernetan, komestiblia eguan danian.

3. Tabernaz taberna joaten zen limonada-kaxak banatzera

- **Erref:** SOR-034/005
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:07:38. **Bukatu:** 00:09:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Edari-ekoizleak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Hasieran, arazoak izan zituzten: gaseosa betetzen hasten ziren; baina, gora egitean, esplotatu egiten zien. Horregatik, botilak erdi beteta uzten zituzten. Kaxatan sartu eta tabernetara banatzen zituen. Duroa kobratzen zuen eta harekin lau lagun mantentzen zituen.

Transkripzioa

- Eta bueno, ba, gaseosak eitten hasten giñan ta betetzen genduzen bastante, baiña ixotzen zebanian, “punba!” ta errebentatzen zoskun han, bustitzen nintzan, bera be bai igual... Ta dana... Zuluetatik urtetzen eben, ur guztia limonadiana, zeaittik eze materixalakin preparatzen genduzen botilla guztiak, ezta, bere tamaiñora arte. Gero horixe zeguan bakarrikan. Ipiñi han, urari bestia, bonbia... ura martxan ipiñi, ta hartu ta ipiñi. Ta hartu ta bueltia hartzen zebanian, ya bete, itxitta eguan. Baiña gero, ze pasatzen zan? Ba, guk zela ez zekiun gatzana, ba, haura ixo ta ixo, seis y median egon bihar zana beti, ixo ta ixo hasten zanian, ba botillak ipiñi ta “punba!” Ta “tiros y tiros y tiros”! Eneee...! Erdi-betia. Ta erdi-betia esaten genduan eze, “Ene!” berak, Markosek esaten ostan: “Danak eraten jittune oin, oin danak. Erdixa be ondo daon, erdi-betia be. Igual-igual. Bueno, benga kajia, jaso deigun”. Han harri zatar bat eguan —ura pasatzen zan [Coronan] han behian— ta han pasatzen ta kaja astun-astun urez betetakuak. Eta nere amantal ta [guztirikan] ala! Gilanera. Durua. O! Grandia zan orduan durua. Ala, durua, benga! Hurrengo, erreka aldian Tintorekua, Anjelenekua... Kantua be badao, ba? Zera, kantua...

- Bai, lehengunian hasi ziñan kantatzen.
- Hori. Hori kantuori. Ba, horrek taberna guztiorrek, e? Ba, danetara txandaka eruaten neban nik kajak. Durua hartu, ta lau lagun mantentzeko. Hiru inutillak, hiru gaixuak. Eta neu eittekorikan etxe zahar haundi hartan. E? Bildurrez. Goittik beheraño animarik be ez! Animarik be ez.

4. Tabernaz taberna joaten zen limonada kajak banatzera

- **Erref:** SOR-034/006
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:09:40. **Bukatu:** 00:11:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debararreneko lantegiak

Laburpena:

Berak banatzen zituen kajak tabernetara (Anjelenera, Beltxiorrenera...). Sarritan kajak jasotzeko indarrak ez eta laguntza eskatzen zuen. Asko saltzen zen limonada. Errealeko pagarekin pastela jan eta limonada edan. Eskaera handia izaten zuen.

5. Limonada naturala egiten zen azukre eta "Orange"-arekin

- **Erref:** SOR-034/008
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:14:52. **Bukatu:** 00:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debararreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>Sakarina erabiltzea debekatuta zegoen eta behin sustoa pasatu zuen inspektorearekin. Azukrearekin eta "Orange" limoiarekin egiten zen limonada. Kanpotik ekartzen zuten "Orange"-a eta gerra aurretik 50 pezeta balio zituen. Lehengo limonada natural-naturala eta askoz goxoagoa zen.</p>

6. 1935ean futbol partidua jokatzera Debara

- **Erref:** SOR-034/009
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:16:30. **Bukatu:** 00:19:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

1935ean Azkoititik Debara joan ziren futboleko jokatzera. Bandera ederra eginez gero doan joango zirela esan zien. Jostunak ziren etxean eta terziopelozko telarekin bandera egin zuten, gero "Anaitasuna" insignia bordatu zioten. Handik urte batzuetara umeei Debara joan ziren baten Debako taberna baten ikusi zuten bandera.

7. Futboleko jokatzera joan eta gero dantza egiten zuten

- **Erref:** SOR-034/010
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:19:26. **Bukatu:** 00:20:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Aisia » Kultura » Musika
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Galdu egin zuten Debaren kontrako partidua, baina gero musika egoten zen eta ez zitzaien ardura. Bidean ere musikarekin eta kantuan joaten ziren. Beasainera joan ziren baten harrika bota zituzten partidua irabazi zutelako. Nola pasatzen zuten gazte-denbora.

8. Soraluzeko denda eta tabernak

- **Erref:** SOR-034/018
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:43:06. **Bukatu:** 00:44:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Gila taberna, janari-denda eta estankoa zen. Lehen "Anjelesenekua" deitzen zitzaion. Kantu bat dago Soraluzeko dendak aipatzen dituen. Zati batzuk abesten ditu, erdaraz.</p>

9. Txarlestona lehenengo aldiz plazan

- **Erref:** SOR-034/022
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:52:20. **Bukatu:** 00:53:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Bekatua zen txarlestona dantza egitea. Bere auzoko neska batek dantza egin zuen lehenengo aldiz pianojole batekin herriko plazan eta kritika asko izan zituzten. Okindegia zuten lekuan dantzalekua jartzen zuten, pianoarentzat eszenario eta guzti.

10. Gerra garaian, pianoa sutarako

- **Erref:** SOR-034/023
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:53:35. **Bukatu:** 00:54:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

Okindegia zuten lekuan, dantzalekua jartzen zuten, pianoarentzat eszenario eta guzti. Gerra garaian, sua egiteko, pianoa puskatu behar izan zuen. Herritik alde egindakoek utzitako porruak batzen zituzten ezagun batek eta berak, jateko.

11. Frontoia zine moduan; fonografoa

- **Erref:** SOR-034/025
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:56:16. **Bukatu:** 00:57:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Fraide batek fonografoa ekarri zuen eta eurak harrituta egoten ziren hango musika entzuten; "Baserritarrak gera gu" abestia. Frontoiak ez zuen harrera onik izan eta zine moduan erabiltzen zuten.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com